

# GURE LEKU-IZENEN HISTORIA: TOLOÑO MENDILERROA HISTORIA DE NUESTROS NOMBRES DE LUGAR: LA SIERRA DE TOLOÑO

José Ángel Chasco Oyón



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Madrid 27 diciembre 1949  
El Topógrafo  
Custodio Alonso*

*Conforme  
El Jefe de la Brigada*

*Kaezko*

5-490-62-50 = 4 hojas

22

Hoja n.º  
270

010034

de hoja

Hoz Nueva

Bernedo

Termino

Termino

de

Laguardia

DE

Cripian

Termino

de

Termino

de

Laguardia

Pilas

Arroyo

de

Cripian

GURE LEKU-IZENEN HISTORIA:  
TOLOÑO MENDILERROA  
HISTORIA DE NUESTROS NOMBRES DE LUGAR:  
LA SIERRA DE TOLOÑO

José Ángel Chasco Oyón



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Madrid 27 diciembre 1949  
El Topógrafo  
Custodio Alonso*

*Conforme  
El Jefe de la Brigada*

*Kaezko*

5-490-62-50 = 4 hojas

22

Hoja n.º  
270

010034

de hoja

Hoz Nueva

Bernedo

Termino

Termino

de

Laguardia

DE

Cripian

Termino

de

Termino

de

Laguardia

Pilas

Arroyo

de

Cripian

## PRESENTACIÓN

Los nombres de lugar o topónimos, su utilización, evolución y su historia, son más que simples denominaciones para referirnos a lugares. Se trata de referencias geográficas que, muchas veces, nos hablan también de la historia de quienes han habitado ese espacio, de su cultura, sus creencias o de las lenguas que en diferentes momentos históricos han utilizado para comunicarse. Una muestra de esto es el nombre *Sierra de Toloño*.

Este resumen del exhaustivo trabajo de José Ángel Chasco en torno a dicho topónimo busca, apoyándose en las evidencias documentales y orales, impulsar la denominación histórica de la sierra, a todas luces correcta y adecuada.

Desde la primera mención que se conserva de la *Sierra de Toloño*, del año 1387, hasta el testimonio vivo de las personas más mayores del lugar, el trabajo evidencia hasta qué punto ha sido habitual esa utilización. Los datos, tal y como deja patente este trabajo, prueban el “origen popular y el uso local” de la denominación *Sierra de Toloño* frente al origen “académico y más reciente” de la referencia *Sierra de Cantabria*.


El estudio de José Ángel Chasco se ha realizado en el seno de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y se publicará en su totalidad próximamente en la colección *Izenak*. Lo que se ofrece aquí es un resumen realizado de una manera didáctica y clara, orientado no solamente a personas interesadas en el tema, sino también al público en general y, sobre todo, a la población del entorno de la Sierra.

Esta publicación servirá, a buen seguro, para conocer la información histórica referida a la *Sierra de Toloño* y revitalizar su uso en el futuro. Un objetivo que será posible gracias a la colaboración entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, instituciones que han considerado importante publicar este valioso resumen.

***Miren Dobaran Urrutia***

VICECONSEJERA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Vitoria-Gasteiz, octubre de 2017



## ATARIKOA

Leku-izenak edo toponimoak, haien erabilera, bilakaera eta historia, lekuak aipatzeko izen hutsak baino gehiago dira. Erreferentzia geografiko hauek, askotan, hitz egiten digute espazio horretan bizi izan diren lagunen historiaz, haien kulturaz, sinesmenez edota historian zehar elkarrekin komunikatzeko erabili dituzten hizkuntzez. *Tolono mendilerroa* ere horren adibide da.

José Ángel Chascok toponimo horren inguruan egindako lanak mendilerroaren izen historikoa sustatzea du xede; izan ere, dokumentazio mardularen bitartez eta ebidentzien bidez frogatu du toponimo hori egokia eta zuzena dela.

*Tolono mendilerroa*z gorde den 1387. urteko lehen aipamentetik tokiko zaharrenen lekukotasun biziraino, lanak agerian uzten du noraino izan den zabala erabilera hori. Datuek, Chascok nabarmentzen duenez, *Tolono mendilerroa* izenaren “herri-jatorria eta tokiko erabilera” frogatzen dute, *Kantabria mendilerroa* erreferentziaren jatorri “akademiko eta berriagoaren” aurrean.


José Ángel Chascoren ikerketa Euskaltzaindian egin da eta lan osoa Akademiak epe laburrean argitaratuko du *Izenak* bilduman. Liburuxka honetan eskaintzen dena, berriz, horren laburpena da, era didaktiko eta argigarrian egina. Izan ere, oso garrantzitsua da adituek ez ezik herritar guztiek ere lan honen berri izatea, eta bereziki mendilerroaren magalean bizi diren herritarrek.

Amaitzeko, ziur nago lan hau baliagarria izango dela *Tolono mendilerroa* izenaren gainean informazio historiko garrantzitsua ezagutzeko eta, aurrerantzean, haren erabilera indartzen jarraitzeko. Elkarlanari esker izango da posible hori, Eusko Jaurlearitzak, Arabako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak bat egin baitute ikerketaren emaitzaren laburpen hau zabaltzearekin.

***Miren Dobaran Urrutia***

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urria



## 0. SARRERA GISA

Sartu gabea nintzen orain arte Arabako Errioxa eta Arabako Mendialdea elkartzen dituen mendilerroaren izen egokiaren gaineko eztabaidan, baina, azkenean, beharrezkotzat jo dut gai honen inguruan azken urteotan bildu ditudan datuen eta egin ditudan ikerketen berri ematea.

2013ko ekainaren 18an, mendilerroaren izena aztergai zuten eztabaida-leku batean parte hartzaile izan ondoren, hartu nuen erabakia. Bileran Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren egoitzan egin zen. Bertan ikusi nuen nola batzuek bultzatu nahi duten *Kantabria mendilerroa* izena, zehaztasun dokumentalik gabe, *Toloño mendilerroa* tradiziozko izenaren gainetik jarritz. Hortaz, egia historikoaren mesedetan, behartu dut neure burua ikerketa-lan hau ezagutzera ematera. Argitaragabeko datu asko biltzen dira bertan, eta berariazko ahalegina egin dut lehenago beste ikertzaile batzuek aurkeztutako daturik eta argudiorik ez errepikatzeko. *Toloño mendilerroa* izenaren aldeko ebidentziekin lau multzo nagusi egin ditut: etnografikoak, historiko-dokumentalak, kartografikoak eta, azkenik, idatziko iturriak edo literarioak.



José Ángel Chasco, José Miguel Barandiaran eta Luis María Chasco, Ataunen (egilearen artxiboa).

José Ángel Chasco, José Miguel de Barandiaran y Luis María Chasco, en Ataun (archivo del autor).

## 0. INTRODUCCIÓN

No había entrado hasta ahora en la disertación sobre cuál es el nombre adecuado de la sierra que une las comarcas de Rioja Alavesa y Montaña Alavesa, pero, al final, he creído necesario aportar el resultado novedoso de mis investigaciones y estudios acerca de este asunto en los últimos años.

Me decidí a ello tras asistir a un foro sobre la denominación de la sierra que tuvo lugar el 18 de junio de 2013, en la sede de la mancomunidad de la Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa. Allí comprobé la falta de rigor documental con que algunos quieren impulsar erróneamente el nombre *Sierra de Cantabria*, por encima de la denominación tradicional *Sierra de Toloño*. Por ello, en beneficio de la verdad histórica, me siento obligado

a dar a conocer mi trabajo de investigación. En él se incluyen datos inéditos y procuro no repetir pruebas ni argumentos ya presentados antes por otros investigadores. Las evidencias en favor del nombre *Sierra de Toloño* aparecen clasificadas en cuatro apartados principales: etnográficas, histórico-documentales, cartográficas, y fuentes escritas o literarias.

Eskuen artean duzun argitalpen honek ikerketa-lan horren funtsezko zenbait eduki laburbiltzen ditu. Asmoa da lan osoa hartuko duen liburua epe laburrean argitaratu ematea, Izenak deritzon Euskaltzaindiaren bilduman.

La presente publicación es un resumen de algunos de los principales contenidos de este trabajo de investigación. Está previsto que la edición íntegra del mismo vea la luz, en breve plazo, en la colección *Izenak* de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia.

## 1. EBIDENTZIA ETNOGRAFIKOAK


### 1.1. Nekazaritza

Balio handiko herri lekukotasunak dira hauek guztiak, zuzenean pertsona nagusien ahotik jasoak baitira. Esaterako, Moredan, herritar helduenek zioten garia haizatzen zutela Toloñoko haizea (“el aire de Toloño”) zebilenean. Elkarrizketa hauek 2000. urtean egin nituen, *Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren* nekazaritzari buruzko galdeketerako. Informatzaileak Moredakoak ziren. Hauek dira beren izen-deiturak eta jaiotza-urteak: Nunilo Ceballos (1915), José María Eraso (1917), Luis Chasco (1920), Javier Bujanda (1921), Serafin Chasco (1922) eta Gerardo Díaz de Cerio (1925). Zuzendu nahi izan nienean, esanez *Kantabria* zela mendilerroaren izena (hori zelako garai hartako mendizaleen gidaliburuetan eta mapetan gailentzen zen izena), ezetz erantzun zidaten. Moredako adineko herritar haiek baieztatzen zidaten beraiek beti *Toloño* izena entzun zietela beren gurasoei eta aitona-amonei mendilerroa aipatzen zutenean. Eta eransten zuten *Kantabria* besterik zela, Logroño ondoko muino baten izena.

## 1. EVIDENCIAS ETNOGRÁFICAS

### 1.1. Agricultura

Son testimonios populares de gran valor, pues se han recogido directamente de boca de las personas mayores. Así, en Moreda, las personas de mayor edad decían que ablentaban el grano cuando desde el norte soplaba “el aire de Toloño”. Realicé esas entrevistas en el año 2000, para la encuesta de agricultura del Atlas Etnográfico de Vasconia. Los informantes eran naturales de Moreda. Estos son sus nombres y años de nacimiento: Nunilo Ceballos (1915), José María Eraso (1917), Luis Chasco (1920), Javier Bujanda (1921), Serafin Chasco (1922) y Gerardo Díaz de Cerio (1925). Cuando les quise enmendar, diciéndoles que el nombre de la sierra era *Cantabria* (pues ese era el nombre que figuraba en las guías de montañismo y mapas de la época), me corrigieron, y me aseguraban que ellos siempre habían oído decir *Sierra de Toloño* a sus padres y madres, y abuelos y abuelas. Y añadían que *Cantabria* era otro lugar, un cerro próximo a Logroño.



## 1.2. Artzaintza

Era berean, inguru horretan artzaintzan jardundakoek berresten dute *Toloño* esaten ziotela mendilerroari. Hala adierazten zuten Serafín Gil “Arrope” (Ekora, 1900) eta Alejandro Larrión “El Gorrión” (Moreda, 1924) Arabako errioxarrek. Lehena artzain ibili zen Durruma Kanpezun, Gorribuston eta Moredan. Bigarrena, Labrazan, Lagranen, Gorribuston, Vianan eta Moredan. Biak artzainak izan ziren beren bizitza osoan, artzain mutilak zirenetik erretiroa hartu arte. Biek esan zidaten *Toloño* izena ematen ziotela mendilerroari, artzaintzan aritu ziren toki horietan guztietan.

Iritzi berekoa zen Félix Aguirre artzaina (Lantziego, 1934). Bera izan da inguruko artzain bakarra, transterminantzian edo ibilbide laburreko transhumantzian aritu izan dena. Artaldean igo ohi zuen, Santiago egunetik San Migel egunera bitartean, oinez Lantziegotik Toloñoko herri basoetara, Kripango iparraldera.



*Félix Aguirre artzaina, Toloño mendilerroa atzean duela (egilearen artxiboa).*

*El pastor Félix Aguirre con la sierra de Toloño al fondo (archivo del autor).*

## 1.2. Pastoreo

Igualmente, personas que han ejercido el pastoreo en la zona corroboran que el nombre que daban a la sierra era *Toloño*. Es el caso de Serafín Gil “Arrope” (Yécora, 1900) y Alejandro Larrión “El Gorrión” (Moreda, 1924). El primero estuvo de pastor en San Román de Campezo, Barriobusto y Moreda. El segundo, en Labraza, Lagrán, Barriobusto, Viana y Moreda. Ambos fueron pastores durante toda la vida, desde niños zagales hasta el retiro, y me corroboraron que el nombre de la sierra era *Toloño*, en todos los lugares donde desempeñaron el oficio.

De la misma opinión era el pastor Félix Aguirre (Lantziego, 1934). Ese es el único pastor de la comarca que ha practicado la transterminancia o trashumancia de rebaños de interior en verano. Acostumbraba a subir su rebaño de ovejas, de la festividad de Santiago a la de San Miguel, andando desde Lantziego hasta el Comunero de Toloño, al norte de Kripan.

### 1.3. José Antonio González Salazar etnografoaren datuak


Aurreko datuek berresten dute 1986. urtean José Antonio González Salazar etnografo eta garai hartan Bernedoko abade zenak idatzi zuena: “Aunque oficialmente [a] la sierra [...] se le conoce con el nombre de Cantabria, los habitantes de la zona le llaman sierra de Toloño a toda ella”. Hitz hauekin izenaren ahozko tradizioa gordetzen zuten adineko herritarrei buruz ari zen ikertzaile arabarra. González Salazarrek halako datuak jasoak zeuzkan Angostinan eta Bernedon, 1970. urte aldera. Honela kontatzen du Kripanen 1974. urtean gertatutakoa, “me aconsejaron como informador a un señor de 92 años que se apellidaba Marañón [...] Le pregunté por el nombre general de la sierra. Sin ninguna duda me respondió *Sierra de Toloño*. Yo insistí si no había oído hablar de Cantabria y después de pensar un rato me dijo que en Cripán no, que en Logroño es donde estaba Cantabria”. Félix Marañón zen gizon hura, 100 urterekin zendu zena.

*Toloño mendilerroa* izenak hurrengo belaunaldian ere badirau. Rubén Fernándezek (Kripan, 1943) izen hori ematen dio mendilerroari, bere arbasoengandik ikasi zuena bera.

### 1.3. Datos del etnógrafo José Antonio González Salazar

Esos datos confirman lo que escribiera en 1986 el etnógrafo y entonces sacerdote en Bernedo José Antonio González Salazar: “Aunque oficialmente la sierra [...] se le conoce con el nombre de Cantabria, los habitantes de la zona le llaman sierra de Toloño a toda ella”. Con estas palabras el investigador alavés se refería a las personas de mayor edad, que mantenían la tradición oral del nombre. González Salazar ya había recogido ese tipo de datos hacia 1970 en Angostina y Bernedo. Y cuenta que en 1974, en Kripan, “me aconsejaron como informador a un señor de 92 años que se apellidaba Marañón [...] Le pregunté por el nombre general de la sierra. Sin ninguna duda me respondió *Sierra de Toloño*. Yo insistí si no había oído hablar de Cantabria y después de pensar un rato me dijo que en Cripán no, que en Logroño es donde estaba Cantabria”. Se trata de Félix Marañón, quien falleció a la edad de 100 años.

El nombre *Sierra de Toloño* pervive en la generación siguiente. Así, Rubén Fernández (Kripan, 1943) también denomina así la sierra, del mismo modo que aprendió de sus predecesores.



## 2. EBIDENTZIA HISTORIKO-DOKUMENTALAK

*Toloño mendilerroa* izendapena inguru horretako udal dokumentuetan agertzen da, XIX. mendearen bigarren erdian. Horren erakusgarri ugari aurki daitezke.

### 2.1. Errepidearen eraikuntza Toloño mendilerroan zehar (1870)


Espedientea hasi zen errepidea egiteko “desde el puerto de Maestu a la sierra de Toloño”. Proiektu horren inguruan biltzen ziren Arabako Errioxako udal batzuk (Gorribusto, Elvillar, Kripan, Labraza, Lantziego, Binasperi eta Ekora) eta Arabako Mendialdeko beste batzuk (Bernedo, Korres, Kinta). Udal horiek guztiek ontzat ematen zuten *Toloño mendilerroa* izena, mendilerroaren ekialdeari aplikatzen zitzaionean.

## 2. EVIDENCIAS HISTÓRICO-DOCUMENTALES

La denominación *Sierra de Toloño* figura en los documentos creados en los municipios de la zona en la segunda mitad del siglo XIX, y hay numerosos ejemplos.

### 2.1. Construcción de la carretera por la sierra de Toloño (1870)

El expediente se inició para la construcción de la carretera “desde el puerto de Maestu a la sierra de Toloño”. Este proyecto agrupaba en un asunto común a ayuntamientos riojano-alaveses (Barriobusto, Elvillar, Kripan, Labraza, Lanciego, Viñaspre y Yécora) y de la Montaña Alavesa (Bernedo, Korres, Quintana). Todos ellos daban por bueno el nombre *Sierra de Toloño* aplicado al tramo más oriental de la sierra.



Arabako Artxibo Historikoan gordetzen den 1870 urteko agiria.

Documento de 1870 que se conserva en el Archivo del Territorio Histórico de Álava.




## 2.2. Toloñoko mendilerroaren herri basoen auzia (1888-1893)

Auzia izan zuten Guardiak eta antzina berari zegozkion herriek, herri basoen eta bazkalekuen gozamenagatik. Herri horiek hiribildu izatea lortu zutenean, eta Guardiatic bereiztea, –lehendabizi, Eltziegok 1583. urtean eta gainerakoek XVII. mendean zehar– eskubide horiek galdu edo murriztu gabe egin zuten. Horretan oinarrituta, Mañueta, Eltziego, Samaniego, Leza, Páganos, Villabuena, Navaridas, Elvillar, Kripan, Lantziago, Ekora, Oion, Binasperi, Lapuebla de Labarca eta Moredako udalek Arabako Aldundiaren baimena lortu zuten, epaitegietan zegozkien egintza juridikoak erabiltzeko. Lehenik, Guardiako Lehen Instantziako Epaitegian ebatzi zen auzia; ondoren, Burgosko Lurralde Auzitegira pasatu zen eta 1893. urtean Auzitegi Gorenean bukatu zen, behinola Guardiako Ermandadea osatzen zuten udalen interesen aldeko sententziarekin. Ondorioz, herri basoak erregistratu zituzten Guardiako Jabegoaren Erregistroan, 1895eko otsailaren 26an: “monte comunal sito en Laguardia, llamado Sierra de Toloño, de 1.226 hectáreas y 92 áreas”. Izen horrekin egin zuten, auzia hasi zenetik epaitegietan erabili zuten izen berarekin.

## 2.2. Pleito del Monte Comunero Sierra de Toloño (1888-1893)

Enfrentó a Laguardia con sus antiguas aldeas por los aprovechamientos del monte y los pastos comunes. Cuando estas aldeas pasaron a ser villas independiándose de Laguardia –primero Elciego en 1583 y el resto durante el siglo XVII– lo hicieron sin pérdida o limitación de tales derechos. Apoyándose en ello, los ayuntamientos de Baños de Ebro, Elciego, Samaniego, Leza, Páganos, Villabuena, Navaridas, Elvillar, Kripan, Lanciego, Yécora, Oyón, Viñaspre, Lapuebla de Labarca y Moreda obtuvieron autorización de la Diputación alavesa para ejercitar ante los tribunales las acciones que les competían. El pleito se dirimió primero en el Juzgado de Primera Instancia de Laguardia; pasó luego a la Audiencia Territorial de Burgos y concluyó en 1893 en el Tribunal Supremo, con sentencia favorable a los intereses de los ayuntamientos que antiguamente componían la Hermandad de Laguardia. Estos inscribieron el monte comunero en el Registro de la Propiedad de Laguardia el 26 de febrero de 1895: “monte comunal sito en Laguardia, llamado Sierra de Toloño, de 1.226 hectáreas y 92 áreas”. Lo hicieron con ese nombre, el mismo que utilizaron en los tribunales de justicia desde el inicio del pleito.






### 2.3. Gehiegizko egur mozketa (1893)

Ez zen arazorik falta izan herri basoen eskubideen gozamenean. Horrela, Ekorako udalbatzak ordezkari bat izendatu zuen, 1893ko irailaren 6an Eltziegion egitekoa zen bilkurara joan zedin. Honela esaten da agirian: “[la reunión] que habían de celebrar en la villa de Elciego las villas de esta Hermandad para tratar lo más conveniente a las mismas visto el abuso que se hace de corte de leña talando el Monte Comunero llamado ‘Sierra de Toloño’ por algunos vecinos de dichas villas”.

### 2.3. Corte abusivo de leña (1893)

El disfrute de los derechos sobre el Comunero no estuvo exento de problemas. Así, la corporación municipal de Yécora nombró un comisionado para que acudiera el 6 de septiembre de 1893 al acto “que habían de celebrar en la villa de Elciego las villas de esta Hermandad para tratar lo más conveniente a las mismas visto el abuso que se hace de corte de corte de leña talando el Monte Comunero llamado ‘Sierra de Toloño’ por algunos vecinos de dichas villas”.



Iekorako Artxiboa: gehiegizko egur mozketak Toloño mendilerroan (1893)

Archivo de Yécora: talas abusivas de leña en la sierra de Toloño (1893).

## 2.4. Toloño mendilerroaren urarekin Logroñoeko hiria hornitzeko proiektua (1900-1914)

XX. mendearan hasieran, Logroñoeko hiriak edateko ur-horniketa hobetzeko premia handia zuen. Arazoa areagotu egin zen 1900. urtean Iregua ibaiaren ur-goraldi batek hornikuntza-galeria eta ubidea suntsitu zituenean. Aztertu zuten irtenbideetako bat, aurrekontu altukoa zen arren, ura Toloño mendilerroaren ipar isurialdetik ekartzea izan zen, Bernedoko Molinos del Soto izeneko lekutik. Asmoa zen ura tunel baten bidez mendilerroaren hegoaldera eramatea. Hiriko prentsak 1900eko apirilean jasotzen duenez, hiriko alkatearen nahia zen Bielza ingeniariak zenbait adituren laguntza izan zezan “para la mejor resolución de los anteproyectos de traídas de aguas de Castañares o Toloño”. Geroago, 1914ko apirilean, Bernedoko leku horretako ura ustiatzeko proiektua aurkeztu zuen Logroñoek, minutuko 70 litro hartzeko asmoarekin, hiria hornitzeko.

## 2.4. Proyecto para abastecimiento de agua a Logroño desde la sierra de Toloño (1900-1914)

A principios del siglo XX, la ciudad de Logroño tenía gran necesidad de abastecimiento de agua potable. Eso se vio acrecentado desde que en 1900 una importante crecida del río Iregua destruyó la galería y el acueducto de suministro. Una de las soluciones estudiadas, aunque de elevado presupuesto, fue la traída de aguas desde la vertiente norte de la sierra de Toloño, en los molinos del Soto, situados en la jurisdicción de Bernedo. La conducción a la vertiente meridional de la sierra se haría mediante un túnel. Como recoge la prensa local de abril de 1900, el alcalde de la ciudad quiso que el ingeniero Bielza contara con personas peritas que le ayudaran “para la mejor resolución de los anteproyectos de traídas de aguas de Castañares o Toloño”. Más tarde, en abril de 1914, Logroño presentó el proyecto de aprovechamiento de aguas de ese paraje de Bernedo, en la sierra de Toloño, para utilizar 70 litros por minuto, con el fin de abastecer la ciudad. La Comisión Provincial denegó la solicitud de aguas.




CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola

## 2.5. Arabako Mendialdeko Toloño udal sortugabea (1936)

Mendilerroaren erdialde-ekialdean, iparraldeko isurialdean, *Toloño mendilerroa* izendapenak izan duen herri erabileraren berebiziko erakusgarria da dokumentu hau. Espedientea Lagran go udal artxiboan gordetzen da. Bernedo, Lagran, Urizaharra, Pipaón eta Kinta herriek 1936ko ekainean erabaki zuten bat egitea, arrazoi ekonomikoak tarteko. Udal berriaren hiriburua Lagran izatea proposatu zuten, eta erabakia izan zen: “dar al nuevo Ayuntamiento el nombre de Toloño por hallarse situados los Ayuntamientos interesados al pie de la Sierra de este nombre”.

## 2.5. El proyecto inacabado del Ayuntamiento de Toloño en la Montaña Alavesa (1936)

Una excelente muestra del uso popular de la denominación *Sierra de Toloño* en la parte centro-oriental de la misma, en su vertiente norte. El expediente se conserva en el archivo municipal de Lagrán. Los pueblos de Bernedo, Lagrán, Peñacerrada, Pipaón y Quintana acordaron en junio de 1936 fusionarse, por motivos económicos. Propusieron que la capitalidad del nuevo ayuntamiento se estableciese en Lagrán. Y eligieron “dar al nuevo Ayuntamiento el nombre de Toloño por hallarse situados los Ayuntamientos interesados al pie de la Sierra de este nombre”.



Lagran go Udal Artxiboan gordetzen den 1936. urteko agiria.

Documento de 1936 que se conserva en el archivo municipal de Lagrán.

### 3. EBIDENTZIA KARTOGRAFIKOAK

#### 3.1. Martín Saracíbar arkitekto probintzialaren mapa (1848)

Martín Saracíbar arkitekto gasteiztarrak bikain eza-gutzen zuen Arabako geografia eta bera arduratu zen lurraldeko errepide askoren trazaduraz. Berak egina da *Mapa de Álava* (1848) lan kartografikoa. Bertan argi adierazita dago *Sierra de Toloño* izendapena, Samaniegotik Kripanera. Saracíbarrek Arabako Al-dundiaren jauregiaren eraikuntzan parte hartu zuen, eta Gasteizko Elizbarrutiaren Apaiztegia eraikitzeko proiektua ere gauzatu zuen.




Martín Saracíbarrek 1848. urtean egin zuen Arabako Mapa.

Mapa de Álava realizado por Martín Saracíbar en 1848.

### 3. EVIDENCIAS CARTOGRAFICAS

#### 3.1. El mapa del arquitecto provincial Martín Saracíbar (1848)

El arquitecto vitoriano Martín Saracíbar, gran conocedor de la geografía alavesa, a cuyo cargo estuvo el trazado de muchas vías de comunicación del Territorio, es el autor de un *Mapa de Álava* (1848). En él la denominación *Sierra de Toloño* abarca claramente desde Samaniego a Kripan. Saracíbar participó en la construcción del palacio de la Diputación de Álava y realizó el proyecto del Seminario Diocesano de Vitoria.





### 3.2. Coelloren mapa (1848) eta bere iturriak

Francisco Coello armadako kartografoak *Cordillera de Cantabria* izendapena erabili zuen (ez *Sierra de Cantabria*), eta soilik mendilerroaren erdialde-ekialdeko ipar isuriari aplikatua. Hego isurialdeari *Sonsierra de Navarra* izena eman zion, eta *Sierra de Toloño* Bastida-Urizaharra aldeari. Coellok *Cordillera de Cantabria* izendapena Historiaren Errege Akademiaren hiztegitik (1802) jaso zuen, nahiz eta Martínez Marina akademikoak horrela aipatzen zuen mendilerroa: “a la qual llamaron algunos Cantabria: este nombre no conviene propiamente sino a un cerro [...] enfrente y a muy corta distancia de Logroño”. Hiztegia egiteko, Martínez Marina asturiarrak ez zuen zuzen interpretatu Lorenzo del Prestamero arabarrak emandako informazioa. Pirinioetatik Santander eta Asturias alderaino doan mendikate osoaz dihardu Prestamerok bere jakinarazpenetan. Hortaz, ez da ari aipagai darabilgun mendilerroaren izen espezifikoa. Izan ere, Joaquín José Landazurik, arabar historialari garaikideak, ez zuen *Kantabria* hitza erabiltzen. 1798. urtean honakoa idatzi zuen egile horrek bere *Obras Históricas sobre la Provincia de Álava* liburuan: “siguiendo por la cordillera y sierra de Toloño que divide y separa la Rioxá de Alava”.

Guztiarekin ere, Coelloren maparen ondorengo kartografia militarra garrantzi handiko eragilea izan zen *Cordillera Cantábrica* eta *Cordillera de Cantabria* izenak pixkanaka maila ofizialean zabaltzeko, baina ez, ordea, mendilerroaren inguruko herri horietan. Horrela egiaztatzen da Arabako Errioxako XIX. mendeko udal agirietan, iturri horietan *Toloño mendilerroa* izendapena tinko sustraituta dagoela nabarmen antzematen delako.

### 3.2. El mapa de Coello (1848) y sus fuentes

El cartógrafo militar Francisco Coello usó la denominación *Cordillera de Cantabria* (que no *Sierra de Cantabria*), pero tan solo aplicada a la vertiente norte del área centro-oriental de la sierra. Daba a la cara sur el nombre de *Sonsierra de Navarra*, y *Sierra de Toloño* a la parte de Labastida-Peñacerrada. Coello tomó esa denominación *Cordillera de Cantabria* del Diccionario de la Real Academia de la Historia (1802), aunque el propio académico Martínez Marina se había referido a ella así en dicha obra: “á la qual llamáron algunos Cantabria: este nombre no conviene propiamente sino á un cerro [...] enfrente y á muy corta distancia de Logroño”. No era correcta la interpretación que hacía el asturiano Martínez Marina de la información dada por el alavés Lorenzo del Prestamero para la elaboración del diccionario. Prestamero se refería en sus comunicaciones al conjunto de montes o cordillera que se extienden desde los Pirineos hasta Santander y Asturias. No lo hacía como nombre específico de la sierra. De hecho, Joaquín José Landázuri, historiador alavés coetáneo, no aplicaba la voz *Cantabria* a la sierra. En 1798 escribía en su *Obras Históricas sobre la Provincia de Álava*: “siguiendo por la cordillera y sierra de Toloño que divide y separa la Rioxá de Alava”.

Con todo, la cartografía del ejército posterior al mapa de Coello fue un factor principal en la paulatina difusión de los nombres *Cordillera Cantábrica* y *Sierra de Cantabria* en los medios oficiales, pero no en el uso popular ni local. Así se observa en la documentación municipal riojano-alavesa del siglo XIX donde se constata el arraigo de la denominación *Sierra de Toloño*.

### 3.3. Toloño mendilerroa Institutu Geografiko Nazionalaren mugarritze agirietan

*Toloño mendilerroa* izenak indartsu dirau XX. mendearen hasieran, mendilerroaren alde bateko eta besteko herrietan. Institutu Geografiko Nazionalak inguruko herrietarren informazioarekin egindako mugarritze agiriek garbi erakusten dute hori. Esaterako, 1927an, Bernedo, Guardia eta Lagran elkartzen diren “Portillo de Pontervera” izeneko mugarriz, honela dio: “se halla situado en la divisoria de aguas que determina la sierra de Toloño”.

### 3.3. Sierra de Toloño en las actas de deslinde del Instituto Geográfico Nacional

El nombre *Sierra de Toloño* estaba en plena vigencia a principios del siglo XX en los pueblos de uno y otro lado de la cadena montañosa. Lo demuestran las actas de los deslindes realizados por el Instituto Geográfico Nacional con los testimonios de los habitantes de la zona. Por ejemplo, en 1927, en referencia al mojón llamado “Portillo de Pontervera”, común a Bernedo, Lagrán y Laguardia, se dice que “se halla situado en la divisoria de aguas que determina la sierra de Toloño”.



*Bernedo herria, Toloño mendilerroaren ipar isurian (egilearen artxiboa).*

*Localidad de Bernedo, en la vertiente norte de la sierra de Toloño (archivo del autor).*




### 3.4. Institutu Geografiko eta Katastralaren minuta kartografikoak

Batez ere, 1927 eta 1930 bitartean egin ziren, tokiko informatzaileekin zuzeneko harremana izanda. Mapa Topografiko Nazionala egin aurreko lanak izan ziren hauek. Horietako bat da Elvillar-Bernedo eta Kripan-Lantziego udal-barrutien mapa, Mauricio Gener topografoak 1929. urtean marraztu zuena. Bertan, *Tolono mendilerroa* izendapenak Peña Ramón ingurua eta San Tirso ermita hartzen ditu, baita Puerto Viejo eta Puerto de Villafria ere, eta Puerto Nuevo deritzon lekuraino iristen da.

### 3.4. Las minutas cartográficas del Instituto Geográfico y Catastral

Fueron hechas principalmente entre 1927 y 1930, en contacto directo con informantes locales. Son los trabajos previos a la realización del Mapa Topográfico Nacional. Uno de ellos es el mapa de los términos municipales de Elvillar-Bernedo y Kripan-Lanciego, del año 1929, dibujado por el topógrafo Mauricio Gener. Abarca el nombre *Sierra de Tolono* desde la Peña Ramón y ermita de San Tirso, pasando por el Puerto Viejo y Puerto de Villafria, hasta llegar al Puerto Nuevo.



1929. urteko minuta kartografikoa.  
 © Instituto Geográfico Nacional  
 Minuta cartográfica del año 1929.  
 © Instituto Geográfico Nacional



## 4. IDATZIZKO ETA LITERATURAZKO ITURRIEN EBIDENTZIAK


### 4.1. Okongo Andra Mariaren koadernotxoa (1931)

Gasteizko Elizbarrutiaren Montepioko inprimategiak argitara emana. Okongo Andra Mariaren sinestunei zuzendua zen; hau da, Bernedo, Villafría, Villaverde, Navarrete, Urturi, Angostina eta Trebiñuko Konderriko Baxauri eta Obekuriko herritarrei. Horrela dio koadernotxoak: “A la falda que mira al Norte de la Sierra de Toloño y a un kilómetro próximamente de la villa de Bernedo en esta provincia de Álava se alza una graciosa Ermita dedicada a la Madre de Dios, bajo la advocación de la Virgen de Ocón”.

## 4. EVIDENCIAS DE FUENTES ESCRITAS Y LITERARIAS

### 4.1. Cuadernillo de Nuestra Señora de Ocón (1931)

Editado por la imprenta del Montepío Diocesano de Vitoria y destinado a los fieles de la Virgen de Nuestra Señora de Ocón (vecinos de Bernedo, Villafría, Villaverde, Navarrete, Urturi, Angostina y de los pueblos treviñeses de Bajauri y Obécuri). Dice así el cuadernillo: “A la falda que mira al Norte de la Sierra de Toloño y a un kilómetro próximamente de la villa de Bernedo en esta provincia de Álava se alza una graciosa Ermita dedicada a la Madre de Dios, bajo la advocación de la Virgen de Ocón”.





*San Tirso ermita, Toloño mendilerroan (egilearen artxiboa).*

*Ermita de San Tirso, en la sierra de Toloño (archivo del autor).*

## 4.2. Nazario Medrano (1933)

Arabako Errioxako egile honek, Kripango abadea izandakoak, “Contribución al Estudio Etnográfico de Cripán” izeneko lana idatzi zuen, eta bertan hau zioen San Tirso ermitaz: “ocupa una oquedad de las peñas que coronan la cumbre de la sierra de Toloño (Cordillera de Cantabria, según otros), al norte de Cripán”. Datu hori berretsi egiten da Ekorako udalaren 1871ko ekainaren 13ko bilkuran: “el presidente hizo ver era llegado el tiempo de hacer la rogativa al Santuario de San Tirso en la Sierra de Tolonio”.

## 4.2. Nazario Medrano (1933)


Este autor riojano-alavés, sacerdote de Kripán, escribió en su trabajo “Contribución al Estudio Etnográfico de Cripán” que la ermita de San Tirso “ocupa una oquedad de las peñas que coronan la cumbre de la sierra de Toloño (Cordillera de Cantabria, según otros), al norte de Cripán”. Ese dato se ve confirmado en la sesión de 13 de junio de 1871 del ayuntamiento de Yécora, en la que “el presidente hizo ver era llegado el tiempo de hacer la rogativa al Santuario de San Tirso en la Sierra de Tolonio”.

### 4.3. Miguel Martínez Ballesterosen *El Libro de Laguardia* (1874) eta beste egile arabar batzuk

Guardiako idazle honek zera zioen berak idatzitako *El Libro de Laguardia*-n: “todo el espacio comprendido entre el rio y la sierra de Tolonio, o lo que es lo mismo, toda la Rioja Alavesa”. Gehiago dira Arabako idazleen adibideak. Ricardo Becerro de Bengoa gasteiztarrek horrela hitz egiten zuten Guardiaz *Libro de Álava* (1877) izeneko lanean: “magníficamente situada en una altura al pie de la sierra de Toloño”. Era berean, Federico Baraibarrek, Errioxa mintzagai zuela, hitz hauek zuzendu zizkien 1905. urtean Bilbon bizi ziren arabarrei: “la fértil comarca tendida al sol entre el Ebro y la sierra de Toloño”. Baraibar Arabako Aldundiaren presidentea izan zen, eta Gasteizko alkaatea 1897-1902 epealdian.

### 4.3. *El Libro de Laguardia* (1874) de Miguel Martínez Ballesteros y otros autores alaveses

Este autor, natural de Laguardia, escribía en su obra *El Libro de Laguardia*: “todo el espacio comprendido entre el rio y la sierra de Tolonio, o lo que es lo mismo, toda la Rioja Alavesa”. La relación de ejemplos se amplía con el vitoriano Ricardo Becerro de Bengoa que en su *Libro de Álava* (1877) hablaba de Laguardia: “magníficamente situada en una altura al pie de la sierra de Toloño”. También Federico Baráibar, que fuera presidente de la Diputación de Álava y alcalde de Vitoria entre 1897 y 1902, escribía en 1905 sobre La Rioja, “la fértil comarca tendida al sol entre el Ebro y la sierra de Toloño”.





## 5. ONDORIOAK

Bildutako eta egiaztatutako datuek *Toloño mendilerroa* izendapenaren herri jatorria eta tokiko erabilera erakusten dute, eta, aldiz, *Kantabria mendilerroa* izendapenaren arrotasuna eta jatorri akademikoa. *Toloño mendilerroa* izena mendilerroaren mendebaldetik hedatu zen erdialdera eta ekialdera, erreferentzia gisa Toloño mendia hartuta, hau da, mendilerro bereko egiazko puntu geografiko bat hartuta.

1387. urtean agertzen da lehenbiziko aldiz Toloño mendilerroaren aipamena, Toloño mendia mugaren zehatzetik haratago, Rivas de Tereso eta Orzales (egun hustua) herriek izandako auzi batean auzigaia zen Villamonte eta Osluna (Hasleuna dokumentuan) mendatearen bitartean zegoen Artalde izeneko bazkalekuen gozamena.

*Toloño* izena askotan agertzen da XVII. eta XVIII. mendeetako mapa zaharretan, mendilerroaren mendebaldera mugatua bada ere. XIX. mendetik aurrera mapetan mendilerroaren ekialde-erdialdeari ere aplikatuta ageri da. Aldiz, mendilerroan ez dago *Kantabria* izeneko leku bakar bat ere. *Kantabria* izendapenak inguruarekin duen erlazio bakarra, garrantzikoa izanik ere, izen bereko muinoa da, Logroño hiriaren parean dagoena.



*Cantabria muinoa, Logroño hiriaren ondoan (egilearen artxiboa).*

*El cerro de Cantabria, junto a la ciudad de Logroño (archivo del autor).*

## 5. CONCLUSIONES

Los datos aportados y contrastados prueban el origen popular y el uso local de la denominación *Sierra de Toloño*, y el origen académico y exógeno de la denominación *Sierra de Cantabria*. La extensión del nombre *Sierra de Toloño* desde la parte occidental de la cadena montañosa al área central y oriental tuvo como referencia el monte Toloño, un punto geográfico de la propia sierra.

En el año 1387 aparece la primera mención de la sierra de Toloño fuera del límite estricto del monte de Toloño. Se trata de un pleito entre las poblaciones de Rivas de Tereso y Orzales (hoy despoblado) por el disfrute de los pastos del termino de Artalde, entre Villamonte y el puerto de Osluna (*Hasleuna* en el documento).

El nombre *Toloño* aparece a menudo en los mapas antiguos de los siglos XVII y XVIII, aunque sea limitado a la parte occidental de la sierra. Será a partir de mediados del siglo XIX cuando también aparezca en los mapas en la parte central y oriental de la sierra. Por el contrario, la denominación *Cantabria* no se identifica con ningún topónimo que haya existido en la sierra. La única, si bien importante, relación que tiene

Horren lekukotasun argia ematen dute Guardiako San Meder Etxearen mapak (1678) eta Tomás Lópezenak. Berau XVIII. mendearen bigarren erdiko kartograforik behinena izan zen.


XX. mendearen hirurogeiko hamarkadan, Gerardo López de Guereñuren eta Javier Maloren idazkiek funtsezko eragina izan zuten ibiltari eta mendizaleen artean, eta eragin nabarmena izan zuten *Kantabria mendilerroa* izenaren zabalkundean. Gaur egun, González Salazarren txostenaren eta Euskaltzaindiaren irizpenaren (1990) ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Toponimiako datu-basean forma arautu bezala jasota dagoenez gero, *Toloño mendilerroa* izendapenaren erabilera suspertzen hasia da. Ondorioz, gero eta sarriago agertzen da dokumentu kartografiko ofizialetan, argitalpenetan, gida kulturaletan eta komunikabideetan.

Bereziki nabarmentzekoa da *Toloño mendilerroa* izendapena bizirik iritsi dela gaur egun arte, adineko hainbat herritarren ahotan, eta berauek aurreko belau-naldietatik oinordetzan hartu dutela. Horrek erabateko zilegitasuna ematen dio izendapenari, iraunkortasuna eta etorkizuneko proiektioa izan ditzan.

la denominación *Cantabria* con la zona es el cerro de ese nombre, situado enfrente de la ciudad de Logroño. Así lo atestiguan señalados mapas como el de la Casa de San Meder en la villa de Laguardia (1678) y los del cartógrafo Tomás López, el más importante de la segunda mitad del siglo XVIII.

En la década de los años setenta del siglo XX, los escritos de Gerardo López de Guereñu y Javier Malo influyeron notablemente en la propagación del nombre *Sierra de Cantabria* entre senderistas y montañeros. Hoy en día, después del informe de González Salazar y el dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia (1990), y debido al registro de la denominación *Sierra de Toloño* como forma normativizada en la Base de Datos de Toponimia del Gobierno Vasco, su uso se está revitalizando y continúa aumentando su presencia en documentos cartográficos oficiales, publicaciones, guías culturales y medios de comunicación.

Debe subrayarse especialmente que la denominación *Sierra de Toloño* ha llegado viva hasta el presente, en boca de las personas de mayor edad, quienes, a su vez, la han heredado de las generaciones precedentes. Eso legitima plenamente que tal denominación pueda tener continuidad y proyección de futuro.



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Argitaraldia:**

1. a. 2017ko urria

**Ale-kopurua:**

7.400

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Gobernantza Publikoa eta Autogobernuaren Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

**Egilea:**

José Ángel Chasco Oyón

**Testuaren moldatzailea eta itzultzailea:**

Roberto González de Vinaspre

**Argazkiak:**

José Ángel Chasco Oyón eta Mikel Arrazola Arregui

**Azaleko eta kontrazaleko irudia**

Instituto Geográfico Nacional

**Diseinua eta maketazioa:**

EkipoPO

**Inprimaketa:**

Gráficas Irudi, S.L.

L.G.:

**Edición:**

1º, octubre 2017

**Tirada:**

7.400 ejemplares

©

Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi  
Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Edita:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

**Autoría:**

José Ángel Chasco Oyón

**Adaptación y traducción del texto:**

Roberto González de Vinaspre

**Fotografías:**

José Ángel Chasco Oyón y Mikel Arrazola Arregui

**Imagen de portada y contraportada**

Instituto Geográfico Nacional

**Diseño y maquetación:**

EkipoPO

**Imprime:**

Gráficas Irudi, S.L.

D.L.:





EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



araba.eus

Berrnada: { E=784=49-00-00 }  
{ H=786=491-25-00 }

{ E=96=60-00-00 }  
{ H=46=60-00-00 } } 96=60-00-00=Hojas

## Termino de Lagran

{ E=1152=770-00-00 }  
{ H=1150=719-75-00 } } 1151=774-27-50=def

{ E=1103=689-37-50= }  
{ H=1101=688-12-50= } } 1107=688-75-00=

{ Hoja 170-C-A=1102= 688-75-00 }  
{ Hoja 171-C-3= 906= 566-25-00 }  
{ Suma Total = 2008= 1.255-00-00 }

